



JOSEBA OLALDE

... Jaietan ondo pasatzeko ez da askorik behar. Umore ona nahikoa da sarritan. Galdetu bestela inkestako lagunei.

baina itzulia...uf! Behintzat haizeak aurpegiak freskatzzen zizkigun...

Iparraldean ez genuen hola bestarik atzematen, hainbeste gazte, giro euskalduna... Batzuetan lagun batekin autoz joaten ginen; etxean ez ginen geratuko, ez horixe!

Itzlar Arretxe

■ Dantzaria

Zaila da nire jairik onena zein izan den esatea. Normalean, herriko festak izaten dira onenak. Baina egun bat aukeratzekotan, Getxon orain dela urte batzuk ospatu zen Dantzari Eguna aukeratu nuke. Agian dantzaria naizelako izango da, baina dantzariontzat Dantzari Eguna oso festa berezia da. Egun horretan Euskal Herriko probintzia guztietako dantza taldeak elkartzen gara. Getxon, hain zuzen, oso eguraldi ona egin zuen, eta antolakuntzaren aldetik dena primeran joan zen. Gure dantza eta jantziak ezberdinak badira ere, zoragarria da kultura eta ohitura berak elkartzen gaituela ikustea.

Baina lasaiago ibiltzen ginen, eta esperientzia politak izateko aukera gehiago izaten zen. Hala ere, iduri du azken aldi honetan hiesari beldurra galtzen ari zaiola, baina garantiarik gabe.

Oraintsuko besta bat ere oso berezia izan da. Arizkun izan zen, lagun batzuk eraikitzen ari diren etxeko teilatuaren erdiko habea paratu ondoren 'bizkar besta' edo monjorra egin genuen. Euskal Herriko bazter guztietatik etorri zen jendea, baita Grezia eta Alemaniako adiskide batzuk ere. Afalondoan kantari eta dantzari aritu ginen, giro ederrean, eta gero batzuk Ezpeletara eta gu Elizondora joan ginen, gaupasa egitera.

Urteetan parrandetan ibili arren, estatutik egun argiz ateratzean oraindik ere Nosferatu sentsazioa izaten dut, gau osoa ilunpetan eman ondoren bat-batean eguzkiak jotzea gogorra izaten baita.



Jon Alblsu

■ Meteorologoa

Oreretakoa izaki, madalenak bizi izan ditut nik beti hoberearen artean. Jai pila batean egon naiz, eta asko ditut gogoan, baina batez ere nire barrenean zerbait berezia piztu didatenak horiek izan dira. Iparraldean, Nafarroan eta baita ere Bizkaiko Enkarterrietako herri ttikietan euskal kulturari lotutako gi-

roa aurkitu dudanean, batzuetan ustekabea, orduan egondu naiz nire saltsan.

Bertako jendea eta bizimodu ezagutzeak xarma berezia du niretzat, betiere euskal kutsuaz bustirik izaki. Beti ikasten dut zerbait berria herri etako parrandetan, eta horri oso aberasgarria deritzot. Egundoko parrandak egin ditut Euskal Herriko bazter askotan.

Jairik gustukoenak, Oretakoez aparte, Iruñeko sanferminak ditut. Alde bate-tik, Euskal Herriko hiriburu historikoa delako, eta beste-tik, bertan Euskal Herriko toki ezberdinetako jendea elkartu eta ezagutzen delako, eta giro bikainaz gozatzen delako.

Amala Alre

■ Kantaria

Arrosan egiten den Euskal Herria Zuzenean deitu elgarretaratzeaz oroitzapen ona dut. Azken hiru urteotan egin da, uztailaren lehenbiziko asteburuan, eta hiru egunetan kanpaldia, kontzertuak, hitzaldiak eta abar egiten dira. Leku guztietatik etortzen da jendea, eta giro berezia sortzen da. Jendea elkar ezagutzeko aukera ona da, eta zinez gozatzen ahal da bestaz eta musika ezberdinaz, kultura gutxituen aldarrikatzeko kontzertuak egin izan baitira bertan. Jendea elkar ezagutzeko aukera ona da.

Iaz azterketetan nenbilen, baina, hala ere, harat joan nintzen. Bestalde, iaz bertan kantatu genuen musikari ezberdinekin, bakoitza bere berezitasunekin, eta gero diskoa argitaratu genuen. Oso oroitzapen onak gordetzen ditut.

Behar beharrezkoak

• TELLERIA MILLAN

Oria Etxea ALBIZTUR

Tel.: 943653808

• URANGA JOKIN

Goikokale, 16-5.ezk. AZPEITIA

Tel.: 943813056

bertsozale elkarteak

BIZKAIA

• BIZKAIKO BERTSOZALE ELKARTEA

AMOREBIETA ETXANO

Tel.: 946732308

dantza

dantza taldeak

BIZKAIA

• ELAI-ALAI

Artekale, 8 - GERNIKA

Tel.: 946252927

• IRRINTZI-ALAI

BUSTURIA

Tel.: 946870886

• URDAIBAI

FORUA

Tel.: 944306095 (Jesus)

GIPUZKOA

• ALKARTASUNA EDT

82 Pk. - PASAI ANTIXO

Tel.: 943522628 (Asier)

• ERAIKI

IRUN

Tel.: 943623829 (Aitor) 943624430 (Mari Feli)

• EREINTZA

Juan de Olazabal, 23 behea - ORERETA Tel.: 943526553

• GOROSARRI

ESKORIATZA

Tel.: 943715150 (Maidier)

• ITSASI

Juan XXIII z/g 98 P.k. - AZPEITIA

Tel.-Faxa: 943151849

• IRATZARRI

Santa Klara, 7 - 2. - ZARAUTZ

Tel.: 943132278 (Nora)

• JAKINTZA

27 P.k. - ORDIZIA

Tel.: 943880807

• KEMEN

Izaga kalea, 7 - IRUN

Tel.: 943627609

• KRESALA

DONOSTIA

Tel.: 943420905 - 943462164 (Javi)

• MEAKA

Meaka auzoa, 31 - IRUN

Tel.: 943623515 (Peio)

• MOLLARI

Indamendi, 11-5.C - ZARAUTZ

Tel.: 943834878

• MURIXKA

Polentzarrene, 6-3. B - LEZO

Tel.: 943524718

• UDABERRI

Laskurain, 6-2. - TOLOSA

Tel.: 943652309 (Andoni)

elkarteak

kultur elkarteak

BIZKAIA

• KRESALA KULTUR ELKARTEA

Arta Bide, 23 - ONDARROA

Tel.: 946134114

Asisko Urmeneta

■ Marrazkilaria

Onena, egiteko dagoena. Iragandakoak aipatzekotan, hiesa aurreko bestak aipatu-ko nituzke; ez zegoen horrelako mamurik, beldur gutxiago zegoen eta gauaren bukaerarako errazagoa zen norbaitekin elkartu eta oheratzea, nahiz eta neurririk hartu ezean ondorio txarrak egoteko arriskua beti egon.